Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

221 zenbakia
2021 **otsaila**

Prest!

BERBETAN: **ZURIÑE GOITIA BILBAO** ANTROPOLOGOA

ERREPORTAJEA: **DEUSTUKO ETENGABEKO ARRETA GUNEA ITXI DUTE** **BARKUA:** **INAUTERIAK BERRASMATZEN**

TOKIKOM

202-203-205-206-

Sustatzailea

Berbaizu euskara elkartea

Babesleak

Intxixu kastola

etxantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea.

erraldoien ondalan konpartsa

DEUSTO BIZIRIK Comercios, servicios y hostelería de Deusto

BIHOTZ ALAI FOLKLORE DANTZA TALDEA

ARRAVN TALDEA DEVSTV

ELORRI BERTSO ESKOLA

DEUSTUKO JAI BATZORDEA

S.D. DEUSTO

DEUSTUKO GAZTE LOKALA

zirikatzen!

eaj pnv deustu

EGUNSENTIA ESKAUT TALDEA 1982TIK

ernai Deustua

PARE HAUTSI DITZAGUN KATEAK

DEUSTUKO GAZTE ASAMBLADA

Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkartea da edukiaren erantzule bakarra

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Bilbao

Babestu Prest! urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

221 zenbakia
2021eko otsaila

aurkibidea

Iker Basabe Mendizabal - Maider Zalbidea Pardo — **Iritzia** 4

Mamadou Dop — **Gurera etorriak** 5

e erreportajea
Deustuko Etengabeko Arreta Gunea itxi dute

Otsailaren 1etik aurrera Deustuko Etengabeko Arreta Gunea (EAG) gauez itxita dago. Osasun-langileak eta herritarrak kezkatuta agertu dira "berrantolaketaz mozorrotutako murrizketa" delakoan, eta kontrako protesta ugari egin dituzten arren, ez dute lortu itxiera ekiditea. Lehen arreta zerbitzua "ospitaleetako urgentziak arintzeko ezinbestekoa" dela iritzi dute, Bilbon gauez irekita zegoen bakarra zen, gainera. — 6

Ibarrekolanda BHI — **Eskolak** 10

Deustuko jaiak 1915ean, kazetari baten begietatik — **Behin batean** 12

"Ez dugu ulertzen umea Bilbon egotea eta gurasoak urrun sakabanatuta" — **Artikulua** 14

b berbetan
ZURIÑE GOITIA BILBAOrekin

Asier Barandiaran filologoarekin batera XX. mendean bizkaitarrek AEBetara egindako emigrazioa aztertuko du Zuriñe Goitia antropologoak (Deustu, 1994). Barandiaran Bekaren laguntza izango dute horretarako, eta ikerketaren emaitzak urtebeteren burua aurkezteko asmoa dute. — 16

Deustuko geltokia (1978) — **Irudiak berbetan** 21

LITERATURA Indarkeria matxista ikuspuntu kriminologikotik

INAUTERIAK Berrasmatzen

PINTXODROMOA Ore amadun ogia

KULTUR TXOTX Maddi Argote Ledesma eta Ander Anakabe Lekue

barkua bete berba — 24

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Jone Gartzia Gerra
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Nerea Cubillo, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurraga
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura
Argazkiak: Ecuador Etxea
Publizitatea: Jone Gartzia Gerra
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Laura Freijo Iglesia
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.700
Lege Gordailua: BI-571-01

Iker Basabe Mendizabal
Ikaslea deserrian

Xaxaria kantuka

Antzina, frontoietan, markagailurik existitzen ez zenean, xaxariaren lana izaten zen, ikusle guztiek ondo entzun zezaten, neurketaren momentuko emaitza sendo abestea. Horretarako, gaur egun Xabier Euzkitzek telebistan asko erabiltzen duen esamoldea izaten zen ohikoa. "Sakeak 6, erreferak 9". Erabiltzen zituenen artean, bitxi eta ederrena erreferak oraindik tantorik egin ez dueneko esaera da: "Sakeak 6, erreferak esperantza".

Nahiz eta urrunetik aztertu, distantziatik atzeman egiten da sorterrian bizi den egoera zakar eta autoritarioa. Badirudi, osasun egoera aitzakiatzat hartuz inposatutako polizia-estatuak gomazko pilotekin, ibilgailu berriekin eta jarrera oldarkorrez deuseztatzen duela birusa. Bitartean, neurriak jartzen dituen klase agintariak golfera jokatzeko urratu egiten du haien legea. Hirigintzan, bestalde, herritarrontzako jasangarriagoak diren hiriak eraiki beharrean, hormigoizko mamu berriak eraiki eta eraiki daude. Mugitu edo ahotsa altxatzen duen orok estatua osatzen duten partaide guztien kritika latza jasaten du, aurrerakoi jantzia duenarengandik hasi eta kontserbadoreeneraino.

Klaseen arteko partida amaigabe honetan askok argi dugu xaxariak zer esango luken: "Klase agintariak hamaika, langile klaseak esperantza".

Maider Zalbidea Pardo
Pedagogiako ikaslea

Bereziak bezain politak

Askotan entzun izan ditudan euskarazko hitzei buruzko komentarioak etorri zaizkit burura oraingoan: hizkuntza zaila dela, hitz arraroak dituela... Bai hitz bereziak euskaraz ditugunak! Bereziak bezain politak gainera.

Hilabeteak berak, izen deigarri bat duela esango nuke: *otsaila, zezeila, barantaila...* Hitz ederrekin azaldu daitekeen gertakariz beteriko aldia. Inauterietako asteburu *sorginduak, irribarre* eta *zirraren* sortzaileak; bizi dugunaren inguruan gutako bakoitzak ditugun milaka eta milaka pentsamendu, *ortzi-mugaren* gainean sortzen den *enbataren* antzekoak; *ilargi*aren orduak eguzkiaren orduetatik gailentzea; eguraldiari dagokionez, *trumoia, ekaitza, oskorria; hotza, beroa, sexua.*

Beste hitz batzuk, ezpainak *muxu* bat emango bagenu bezala jarriz esaten ditugu: *txutxu-mutxu, zurrumurru, sutsua, musu-truk*... *Ezpainak*, ejem... eskerrak 's'-rekin idatzi beharrean 'z'-rekin idazten dugun.

Batzuetan beharrezkoak diren beste batzuk: *besarkada, laguna, sostengua, amodioa, maitasuna.* Eta ahaztu ditudan beste asko. Seguru nago zuetako bakoitzak beste hainbat hitz izango dituzuela orain buruan, baina argi dago hitz horietako bakoitzak, *ohorea, sorterria, nortasuna* eta garena izatea sentiarazten gaituela... *euskaldunak*.

Mamadou Dop

Jatorria: Senegal
Bizitokia: Erribera

“Beltzean egin behar dut lan jan ahal izateko”

Testua: Nerea Olaziregi

Ezaguna da Mamadou senegaldarra Erriberan. Zazpi urte darama gure artean. Arrantzale, mekaniko eta dendari lanetan ibili eta gero, orain langabezian dago. Egoera zaila izan arren, baikorra da eta etorkizunari itxaropentsu begiratzen dio. Hemen, zaintzen duten lagun onak dituela azpimarratu du.

Zenbat denbora daramazu zure herritik kanpo?

Duela 18 urte irten nintzen. Bidaia luzea izan zen. Hegoafrika, Ingalaterra, Frantzia eta handik Alemaniara joan nintzen.

Nola heldu zinen Euskal Herrira?

Arrantzale lanetan ibili nintzen bost urtez, atunontzietan. Lehenengo Pasaian, eta gero Bermeon eta Hondarribian.

Bahiketa bat ere bizi izan duzu itsaso zabalean.

Bai. 2009an, Somalian, hiru astez egon ginen bahituta. Ni itsasontziko afrikar bakarra nintzen. Itsasontzia handia zenez, urrea genuela uste zuten baina arraina baino ez genuela ikusi zutenean askatu gintuzten.

Zenbat hizkuntza ezagutzen dituzu?

Frantsesa, ingelesa, gaztelania, arabiarra, alemaniarra... eta euskara apur bat.

Zerk ekarri zintuen Erriberara?

Trapagako tailer mekaniko batean lana topatu nuen. Handik Bilboko San Frantzisko auzora etorri nintzen eta janari denda bat ireki nuen bertan, baina itxi behar izan nuen eta orduan Erriberara etorri nintzen. Etxe bat okupatzeko aukera izan nuen eta dagoeneko ia zazpi urte daramatzat hemen.

Garai zailak lana topatzeko, ezta?

Bai. Askotan beltzean egin behar dut lan jan ahal izateko. Baina aurrera egin behar dugu eta baikorrak izan behar gara.

Zelan moldatzen zara hizkuntzarekin?

Espero nuena baino hobeto, lanean asko laguntzen gaituzte. Lan eskaintzaren arabera, hizkuntza ezagutzea ez zen nahitaezkoa, enpresak klaseak ematen dituelako arratsaldero. Ordu asko ematen ditut alemana entzuten eta hitz egiten eta horrek asko arintzen du hizkuntza ikasteko prozesua. Ez da hizkuntza erreza baina alemanek esfortzua egiten dute elkar ulertzeko.

Nola sentitzen zara gure artean?

Oso gustura nago, oso ondo zaintzen naute. Erriberan jende jatorra topatu dut eta familia bat. Euskal Herrian primeran tratatu naute beti, errespetu handia dago hemen.

Ez duzu arrazakeria edo baztertkeriarik bizi izan?

Denok gara berdinak. Frantzian ohituago daude beltzak ikusten baina guk ahalegin bat egin behar dugu integratzeko. Tabernetan sozializatzen naiz ni. Bertan lagunak egin ditut eta jendearen laguntzaz lana topatu dut batzuetan. Ez gara isolatu behar.

Senegalera itzuli zara?

Bai, dirua izan dudanean itzuli naiz. Orain ezin dut.

Etorkizunean pentsatzen duzu?

Batzuetan eta baikorra naiz. Bizitza oso zaila da baina oso erreza izan daiteke. Gure baitan dago. Lortu nahi duzuna argi izan behar duzu eta aurrera egin.

DEUSTUKO ETENGABEKO ARRETA GUNEA ITXI DUTE

Otsailaren 1etik aurrera Deustuko Etengabeko Arreta Gunea (EAG) gauez itxita dago. Osasun-langileak eta herritarrak kezkatuta agertu dira "berrantolaketaz mozorrotutako murrizketa" delakoan, eta kontrako protesta ugari egin dituzten arren, ez dute lortu itxiera ekiditea. Lehen arreta zerbitzua "ospitaleetako urgentziak arintzeko ezinbestekoa" dela iritzi dute, Bilbon gauez irekita zegoen bakarra zen, gainera.

Testua: PREST!

2020ko azaroaren 30ean Osakidetza Deustuko anbulatorioko langileekin bildu zenean gaueko zerbitzua etengo zuela jakinarazteko, hauek "harriduraz eta amorruz" hartu zuten notizia. Ez zuten ulertzen nola itxi zezaketen ospitaleetako urgentziak arintzen dituen zerbitzua, "hain justu pandemia egoera honetan". Horrela adierazi digu SATSE Erizainen sindikatuko Marta Ugaldek. Deustuko Etengabeko Arreta Guneko (EAG) langile batek ere – Olatz deituko diogu bere benetako izena ez erabiltzeko eskatu digulako - ez dio zentzurik ikusten erabakiari, hain zuzen, "herritarrei beti eskatu zaienean urgentzia arinetarako EAGetara joateko ospitaleetara beharrean".

Gaueko zerbitzua eteteko, Osakidetzak jarduera nahikorik ez zegoela argudiatu zuen. "Jakina, gaueko jarduera beti da beste ordutegi batekoa baino txikiagoa, baina horrek ez du justifikatzen 350.000 biztanle gaueko zerbitzurik gabe uztea, hurbileko herri txikiagoek mantentzen duten bitartean", azaldu digu suminduta Marta Ugaldek.

"Hasiera batean, berregituraketa bat zela esan ziguten, baina, ondoren, langileek eta sindikatuek ikusi dugu murrizketa bat izan dela", jarri du azpimarra. Olatzek arrazoia aipatu digu: "Orain lankarteldegi arruntean erizain bat eta erdi gutxiago eta pare bat mediku gutxiago gaude. Pertsona horiek beste ordutegi batzuk indartzera bidera-

Otsailaren 4an itxieraren aurkako 18.411 sinadura aurkeztu zituzten Eusko Legebiltzarrean.

tu dira, lehen aldizkako kontratazio bidez egiten zirenak. Orain ez dituzte kontratazio horiek egiten. Beti aipatzen dute ez dutela langilerik kendu, baina funtzionamenduan gutxiago gaude".

Olatzek susmoa du aipatutako murrizketaren atzean "pribatizazio plan handiago bat dagoela", Osakidetzak ez duelako negoziazioorako jarrerarik izan eta "zerbitzuak urritzen ari delako hainbat esparrutan".

Ondorioak herritarrengan eta langileengan

Gaur egun, "arreta deszentralizatzeko eta kutsatzeak saihesteko" lehen mailako arreta "funtsezkoa" da Olatzen iritziz. "Beti izan da zerbitzu eraginkorra, hurbila eta ospitaleko larrialdiak baino merkeagoa". Izan ere, mediku batek eta erizain batek bilbotar guztientzako zerbitzua bermatzen zuten. "Ospitaleko arreta eta lehen mailako arreta guztiz desberdinak dira. Lehen mailako arretak egon behar du, guk 24 orduz bermatzen genuen, eta orain ez dago bermatuta", azpimarratu du.

Itxieraren aurka azaldu diren sindikatuek (SATSE, ELA, LAB, CCOO, UGT, ESK eta SME), Osaldek, Lehen Arreta Arnasberritzenek, Bilboko Elkartasun Sareakek, Bilboko Auzo Elkarteen Federazioak eta EAGko langileek uste dute gaueko zerbitzuaren itxiera dela-eta, urgentzia zerbitzuek gainezka egingo dutela.

Etengabeko Arreta Guneetan hil ala biziko larrialditzat jotzen ez diren urgentziak artatzen dituzte. Horrelakorik ezean, urgentzia guztiak, arinak zein larriak, Basurtuko Ospitalera bideratu beharko dituzte, "zerbitzu horren asistentzia-karga handiagotuz". "Horrek ekarriko du arreta jasotzeko denbora handitzea eta Covid birusarekiko esposizio arrisku handiagoa izatea", iragarri dute.

Bilboko Auzo Elkarteen Federazioko lehendakari Alaitz Argandoñak ohartarazi du pandemia dela eta, jende askok osasun zentroetara joateko beldurra duela eta Basurtura joan beharrak ez diela lagunduko. "Jendeak askotan ez du larritasuna ondo ulertzen, eta errazagoa da EAGra hurbiltzea ospitalera baino", diosku bertako langile Olatzek.

Orain, gauez gaixotzen diren Bilbotar guztiek Basurtura joan beharko dute, edo etxez-etxeko zerbitzua eskatu, azken hau ez baitute etengo. "Bi kasuetan pazien-

"Beti aipatzen dute ez dutela langilerik kendu, baina funtzionamenduan gutxiago gaude"

tearen arreta gehiago luzatuko da eta beste zerbitzuak gainkargatuko dira. Etxez etxeko zerbitzua arrazoi desberdinengatik anbulatoriora hurbildu ezin direnentzako da, eta Basurtu larrialdietarako dago", zehaztu du.

"Beti izan da zerbitzu eraginkorra, hurbila eta ospitaleko larrialdiak baino merkeagoa"

Aurkako protestak

Deustuko Elkartasun Sareak deituta eta Osasun publikoa defendatu lelopean, asteazkenero elkartzen ziren auzokideak anbulatorioko atean, beste auzo askotan bezala. Testuinguru horretan heldu zitzaien EAGaren itxieraren berria, eta elkarretaratzeak indartzea erabaki zuten segituan. Deialdiak Bilboko auzo guztietara zabaltzen hasi ziren eta pixkanaka gero eta eragile gehiago batu ziren itxieraren aurka. Urtarrila indarrez hartu zuten: Deustuko EAGko langileak, Osalde, Bilboko Elkartasun Sareak, Lehen Arreta Arnasberritzen, Bilboko Auzo Elkarteen Federazioa, SATSE, SME, ELA, LAB, CCOO, UGT eta ESK biltzen zituen koordinazio talde bat sortu zuten.

Besteak beste, taldeak mozio bat aurkeztu zuen urtarrilaren 28ko Bilboko osoko bilkuran, Udalak Osakidetzari eta Osasun-Sailari zerbitzua ez kentzeko eska diezaien. Mozioa ez zen onartu, eta, horren ordez, Udal-Gobernuak proposatutako emendakina onartu zen. Bertan Osakidetzari eskatzen zaio itxieraren ondorioak aztertu ditzala. "Gure ustez itxiera saihestu behar zen, ez itxi osteko ondorioak baloratu", diosku kezkatuta Marta Ugaldek.

Otsailaren 4an 18.411 sinadura aurkeztu zituzten Eusko Legebiltzarrean itxieraren aurka eta otsailaren 6an manifestazio bateratua egin zuten Bilbon Osasun publikoa eta duina. Murrizketarik ez lelopean. Horrez gain, Osakidetzako langileek hainbat lanuzte eta mobilizazio egin dituzte azkenaldian osasun publikoarentzako baliabide gehiago eskatzeko. Hala nola, urriaren 4an mobilizazioa egin zuten Bilbon, urriaren 29an Arabako Osakidetzako langileek greba egin zuten, azaroaren 5ean Gipuzkoakoek eta

Otsailaren 46ko manifestazioa.

EUSKAL ALIEN NAZIOA
Ihes-gela
www.euskararenetxea.eus
Euskararen Etxea
Agoitz plaza 1 48015 Bilbo, Bizkaia.
Tel.: 94 402 80 81
E-posta: info@euskararenetxea.eus
Metroa: San Ignazio > Lekeitio Irteera.

azaroaren 12an Bizkaikoek. Egoerak hobera egin ez eta urtarrilaren 28an Osakidetza osoan egin zuten lanuztea aldi berean. Horri gehitu behar zaio, azpikontratatutako osasun-langileak kexu direla txertorik ez dietelako jartzen. Zehazki, anbulantzia zerbitzuko langileen %99 dira enpresa pribatuek kontratatutakoak, eta oraindik ez dute euren txertaketaren berririk jaso.

Deustuko Etengabeko Arreta Gunearen gaueko zerbitzuaren itxiera otsailaren 1ean gauzatu zen, agindu bezala, baina aipatutako koordinazio taldea prest dago "borrokan jarraitzeko". "Mobilizatzen jarraituko dugu, funtsezkoa baita Bilbo bezalako hiri batentzat. Hau kenduta, hiri txikiagoetatik kentzeko atea zabalik geratzen da", ohartarazi du Olatzek. Marta Ugaldek antzeko iritzia du: "Guk borrokan jarriatuko dugu, eskubideak kostata irabazten direlako, eta oso erraz galdu. Espero dut noizbait zuhurtasuna nagusituko dela eta beharrezkoa den zerbitzu hau ituzliko dela".

Alaitz Argandoñak ere hilabeteotan piztutako "borrokari jarraipena emateko beharra" ikusten du. Aurreratu digu taldeak asteazkeneko mobilizazioekin jarraituko duela, baina beste eduki eta maiztasun batekin. "Gaueko EAGaren zerbitzua itxi dute, eta orain horren jarraipena egin beharko da. Gainera, auzoetako egoera zein den aztertu beharko dugu, bestelako zerbitzuetan ere berrantolaketak egiten ari direlako, Zabalguneko, Mesedeetako, Zurbarango eta Karmeloko pediatrian kasu. Askotan auzoetako arazoak bigarren mailan geratzen dira, baina EAGarenaz gain murrizketa ugari jasaten ari gara", azpimarratu du.

Horregatik Argandoñak berebizikoa deritzo "errealitatea ondo aztertzeko datuak eta ikuspuntu desberdinak" izatea. Bere ustetan, "alde batetik, instituzioek ematen dituzten arrazoiak eta datuak daude, eta, bestetik, guztiok bizi dugun errealitatea".

Anbulantzietako langileek manifestazioa egin zuten Bilbon otsailaren 18an txertoak eskatzeko.

IKASGAI MADARIKATU HORI

Euskara gorroto nuen; edo, gutxienez, horrela definitzen nuen nik. Gorrotoa. Nahiko hitz gogorra ezezagun bati zuzentzeko. Nola gorrota daiteke ezagutzen ez den zerbait? Seguru beste hitz egokiago bat zegoela sentimendu hori deskribatzeko, baina suposatzen dut hitzen aukeran asmoa ere bazegoela.

Testua:
Unai Zubillaga

Ez dakit non eta noiz hasi zen sentimendu hori garatzen, baina argi dago erabat barneratuta zegoela Ibarrekolanda BHIn batxilergoa ikasten nuen garaian, A ereduan. Euskara: ikasgai madarikatu hori. Gutxitan gainditzen nuena, bere ordutegitik ateratzen zena, leku guztietan zegoena. Euskara, euskara eta euskara. "¿Y el castellano qué?".

Hala ere, ondo gogoratzen dut noiz hasi zen mespretxu hori desagertzen: ikasgai bat izateari utzi zionean, ustekabean, helburu izatetik bide izatera igaro zen. Zer garrantzi duen "z" letrak hizkuntza baten ostean. Kultura, aldarrikapenak, jaiak, elkartasuna… Euskaltegian eman nuen izena eta ikasten hasi nintzen. Hasieran, arantza hori kentzeko baino ez; gero, bakoitzak nahi zuen hizkuntzan aritzeko aukera izan zezan; eta laster konturatu nintzen hori ez zela nahikoa izango. Lehen leku guztietan omen zegoena bat-batean oso gutxitan aurkitzen nuen. Dena zegoen gaztelaniaz, denek hitz egiten zidaten gaztelaniaz. Gaztelaniaz, gaztelaniaz eta gaztelaniaz. Eta euskaraz zer?

Hona hemen bizitzan egin dudan ahaleginik handiena: egun batetik bestera euskaraz hitz egiten hasi nintzen. Hasieran oso gutxi, txarto, astiro, jai giroan, ahal nuena, oraindik ez nekien asko. A zer pazientzia zuten nire biktimek. Ni ere euskararen alde.

Gero, poliki-poliki, hasi nintzen nire bizitzaren esparru gehiagotara eramaten. Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan.

Euskaraldia eta horrelako ekimenei esker askoz errazagoa izan zen bidea. Badirudi zuk euskaraz hitz egiten baduzu, ezkutatuta zeuden euskaldun gehiago agertzen direla. Harrezkero, banderola bat dago zintzilikatuta nire leihoan: euskaraz bizi nahi dut.

Gaur egun, oztopoz oztopo, euskaraz bizi naiz, euskararen aldeko borrokarik handiena. Ahobizi txapa lehen aldiz jarri nuenetik, niretzat pertsona guztiak dira euskaldunak kontrakoa demostratu arte, eta bakoitzak nahi duen hizkuntzan hitz egin dezala. Eta begira zer dibertigarria den bizitza: bederatzi urte geroago, Ibarrekolandara itzuli naiz goimailako gradu bat ikastera, gaztelaniaz, ez baitago euskaraz ikasteko aukerarik.

Tira, ez dut uste euskara maite dudanik, nahiko gogorra da hitz hori. Seguru beste hitz egokiago bat dagoela hau deskribatzeko, baina, horrela definituko dut. Azken finean, hitzen aukeran asmoa ere badago.

DEUSTUKO JAIAK 1915EAN, KAZETARI BATEN BEGIETATIK

1915eko uztailean El Liberal egunkariak 'reporter' bat bidali zuen Deustura, herriko jaien berri eman zezan. Erreportaje polita argitaratu zuen eta guri lagunduko digu garai hartako erromeriak zelangoak ziren irudikatzen.

Testua:
Hektor Ortega



Deustuko erromeria, Novedades aldizkarian. 1913ko uztaila.

Zorigaitzez, ez zuten izenpetu erreportaje zabala, zutabe bi eta erdi 1915ko uztailaren 5eko El Liberal egunkariko hirugarren orrialdean. Ez dakigu, beraz, nork idatzi zuen. Argazkirik ere ez zekarren.

Hasteko eta bat, esan dezagun Done Peri (San Pedro) jaietako erromeriara etorri zela herrira eta, noiz argitaratu zen ikusita, segurutik Ofrenda-domekara, alegia, Done Peri egunaren osteko domekara. Urte askotan hura izan zen deustuarren jai-egun handia, 1841 arte bilbotar agintariak Done Peri egunaz jabetu zirelako.

Kazetariak hamar urte egin ei zuen Deustuko erromeria joan barik. Kronikan aitortu zuenez, 1905ean oinez joan zen Bilbotik; 1915ean, ostera, Areetako tranbia elektrikoan. Baina gazte asko oinez joaten zen ibai ondotik eta, jakina, Salbeko garagardotegian geldialdia egiten zuten, *bock* batzuk edanez eztarria freskatzeko. Bidean, hamar urte lehenago bezala, eta are mende erdi arinago legez (ikus PREST!, 113. zenbakia), elbarri txiro andana bat ikusi zuen bazterrean jarrita, limosnatxo eske.

Heldu zen erreportaria Deustuko plazara. Hura zen giroa. Plaza erdiko kioskoan Deustuko Udal

Bandak jotzen zuen. Udaletxeko arkupean, berriz, Luis Arzuagak txistua jotzen zuen. Segurutik, bera zen sasoi hartako Deustuko udal txistularia. Eta hori gutxi balitz, plazan barreiaturik, han-hemenka, musikari ibiltarien inguruan antolatutako korroak, akordeoiaren, gitarraren, biolinaren edo are pandero handien doinuaz dantza egiteko. "Herritarrek sutsuki gurtzen dute Terpsicore", laburbildu zuen kazetariak, greko klasikoen dantzaren musa aitatuz.

Jarraian frontoira sartu zen. Plazan bertan zegoen. Egun hartan Begoñés anaietako bik -Rafael eta Juan Gisasolak, alegia- Txistu, Altube eta Navarreteren aurka jokatu zuten, palan. Baina pilotalekuak ez zeukan lehengo garaietako distira. Pilota bera endekatuta ei zegoen, ez ei zuen, lehen bezala, jendetzarik mugitzen partida handi baten amuarekin. Bilboko Euskalduna frontoiko Luis Arakistain pilotari ohi eta kudeatzailearekin hitz egin zuen kazetariak. Eta jarraian, Benito Santamarina alkatearekin. Honek esan zion Deustuko Udalak frontoia erosi zuenean asmoa zela pilotalekuaren orubean Udaletxe eta eskola berriak altxatzea, baina dirurik ezak asmo handi haiek zapuztu zituela.

Atzera atera zen kanpora kazetaria. Plazan dantza giroa nagusi zen, ehunka bikote akordeoi, gitarra, biolin, txistu edo gaitaren doinuez "mazurka, schotis, habanera edo jotak" dantzatzen. "Infernuko zalaparta hark zorabiatu eta are zoratu ere egiten zuen", idatzi zuen berriemaileak. Bada, arratsaldez beste erromeria bat egin behar zuten plazan eta gauaz hirugarrena, Erriberan. Luzea, infernua.

Ba ei zegoen bestelakorik, hala ere: umeentzako barrakak, Bilbotik ekarriak, tiro egiteko postuak, txurroak, izozkiak, garagardoak eta erroskillak saltzen zituzten txosnak eta, hara non, jai giroaren erdian, liburutegi ibiltaria, literaturzaleek "bazka izpiritualaz ase egiteko". Eta, horrez gain, goizean Botikazarreko landan futbol partida jokatu zuen Deusto KEk eta Ariñ-en ordezko taldeak.

Baina kazetaria ez ei zen joan denbora alferrik galtzeko eta beste elkarrizketa bat tartekatu zuen. Oraingo honetan Antonio Chaves Deustuko Udal Bandaren zuzendariaren berbak batu zituen. Chavesek kontatu zuenez, 1908an Deustuko Udalak agindua eman zuen banda 15 musikaritik 20ra igaro zedin eta musika soinu berriak -"de metal blanco", zehaztu zuen- erosteko, baita bonboa ere.

Jaietako beste ekitaldi garrantzitsu bat aurreskularien lehiaketa zen. Udaletxe aurrean jokatu zen. 15-25 urte bitartekoen txapelduna Pedro Azkuenaga (Bilbo) izan zen, eta bigarren Begoñako Jesus Petralandak egin zuen. 25 urtetik gorakoetan, berriz, Mallabiako Gregorio Abendibarrek jantzi zuen txapela, Markinako Domingo Garatxenaren aurretik. Hori bai, epaileak udal kargudunak izan ziren: Jose Olabe alkateordea eta Migel Agirre, Jose Olagorta eta Eugenio Olabarrieta zinegotziak.

Ordena eta segurtasun publikoa zaintzeko, nor hobeagoa Guardia Zibila baino? Kazetariak segurtatu zuenez, jendearen artean txapelokerrak ugari. Deustuko kuarteleko kabo komandantearri ere galdera pare bat egin zizkion kazetariak, baina dena bare-bare zegoela beste erantzunik ez zuen jaso. Zer ikusirik ez, beraz, urte batzuk lehenagoko bortizkeriarekin. Erreportariak ondo gomutan zeukan 1903ko uztailaren 5eko hilketa. Deustuko erromeriaren erdian norbaitek labankada bortitza jo zion ustekabean Luciano Sarasola deustuar gazteari. Bertan jausi zen, zerraldo, dantzaldiaren erdian. Inoiz ez zen argitu nork hil zuen.

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

“EZ DUGU ULERTZEN UMEA BILBON

Martxoaren 8an Iratik hiru urte beteko ditu eta Aranjuezeko (Madril) kartzelatik aterako da, baina Bea Etxeberria eta Iñigo Zapirain gurasoak barruan geratuko dira. Umeak bere familiarekin bizitzeko duen eskubidea defendatzeko Irati gurasoekin lataforma sortu dute, eta Erriberan talde indartsua aritu da lanean.

Testua eta argazkiak: PREST!

Zapirainen familia Erriberan bizi da, horregatik uste du Zumai Zapirainek, Iñigoren anaiak, gaiarekiko ardura piztu dela auzoan. Irati gurasoekin plataforma Alde Zaharrean sortu bazen ere -Iratiren gurasoak bertakoak baitira-, Deustuko ibarreko jende andana batu da lanera.

Hainbat ekitaldi antolatu dituzte azken hilabeteetan eta banaketaren eguna gerturatu ahala, gehiago egingo dituzte. Martxoaren 8ra bitartean babesa emateko argazki bidalketa masiboa proposatu dute, besteak beste.

Martxoaren 9ra begira

Banaketak kezkatzen ditu senitartekoak, “gogorra eta oso mingarria” izango dela uste du Zumai Zapirainek, “nahiz eta gauzak ondo egin”. Azaldu digunez, “egutegia gainean daukagu, egunak pasatzen dira eta banatzeko eguna gero eta gertuago ikusten dugu”. Urte gogorra igaro du familia osoak, koronabirusaren ondorioz kartzelan hartutako neurriak “kolpe latza” izan baitira. Lehen ez zuten haurra eta bikotea bisitatzeko arazorik, baina, azken urtean ezin izan dituzte behin ere elkarrekin ikusi.

Aitak ere ezin izan du umea ikusi, iragan martxotik bis intermodularrak eta familiarrak etenda dituztelako presondegian. Elkarrekin komunikatzeko bide bakarra bideo-deiak direla kontatu digu Zumai Zapirainek: “Aitak mintzaleku batetik egiten du deia, funtzionario batek telefonoko pantaila erakusten diola, eta deiaren beste aldean, hiru solairu gorago, Irati eta Bea daude beste telefono batekin. Zortzi minutuko deiak dira, bi urteko ume batekin, asko mugitzen da eta ez da ondo ulertzen”.

Orain martxoaren 9ra begira daude denak, Irati Bilbora etorriko den egunera. Egun “berezia” izango da, zentzu askotan. “Umea aterako da, berriz ikusiko dugu, baina mingarria ere izango da. Bea bakarrik geratuko da, hiru urtez egunean 24 ordu umearekin egon eta gero, bera bakarrik”.

Iratiren eskubideen defentsan

Plataformaren helburu nagusia Iratik bere familia-

EGOTEA ETA GURASOAK URRUN SAKABANATUTA”

rekin bizitzeko duen eskubidea defendatzea izan da. “Ez dugu ulertzen umea Bilbon egotea eta gurasoak urrun sakabanatuta”, diosku Zapirainek. Senitartekoek aukerak ikusten dituzte gaur-gaurkoz gauzak beste era batean egiteko: “Zaballako kartzela nahiko berria da eta hor modulu familiar bat sor daiteke. Beste motako aukerak ere badaude, tutoretzapeko pisuak, esaterako”.

ZURIÑE GOITIA BILBAOrekin

Antropologoa

“AEBetara joan zirenek beste

Asier Barandiaran filologoarekin batera XX. mendean bizkaitarrek AEBetara egindako emigrazioa aztertuko du Zuriñe Goitia antropologoak (Deustu, 1994). Barandiaran Bekaren laguntza izango dute horretarako, eta ikerketaren emaitzak urtebeteren burua aurkezteko asmoa dute. Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako unitate didaktiko bat ere prestatuko dute.

Testua: Jon Intxaurraga eta Jone Gartzia Gerra
Argazkiak: Ecuador Etxea

mundu ikuskera bat ekarri zuten”

XX. mendean Bizkaitik AEBetara egindako emigrazioa aztertuko duzu Asier Barandiaranekin batera, nola sortu zen proiektua?
Asier eta biok ezagun baten bidez jarri ginen harremanetan. Berak urte batzuk daramatza Amerikako Estatu Batuetara egindako immigrazioa eta diaspora aztertzen, eta nik beti izan dut interesa gai horrekiko.

Nondik datorkizu interes hori?
Nire bi birraitite urte asko egon ziren Ameriketan artzain, eta gero bueltatu ziren. Horrek piztu zidan kuriositatea.

Zer dela-eta aurkeztu zenuten proiektua Barandiaran Beka eskuratzeko?
Asierrekin jarri nintzen harremanetan berak proiektu hau Nafarroan daramalako. Lan bera Bizkaian egitea proposatu zidan. Sasoi horretan Barandiaran fundazioak Barandiaran Beka atera zuen eta gure proiektua aurrera ateratzeko aukera apropos moduan ikusi genuen. Animatu ginen, gure planteamendua aurkeztu genuen eta eman egin ziguten.

Zertan lagunduko dizue?
Urtebeteko beka da eta batez ere ekonomikoki lagunduko gaitu. Beste baliabide batzuk ere ematen dituzte, kontaktuak, esaterako.

Zein da urte honetarako duzuen planteamendua?
Orain dela hilabete eman digute beka eta oraindik lana antolatzen ari gara, hasi berri dugu proiektua.

Zerbait erabaki duzue jada?
Ikerketak hiru atal izango ditu. Lehena Bizkaian zentratuko dugu. Alde batetik, hemengo dokumentuak eta agiritegiak arakatuko ditugu, besteak beste, Euskadiko Artxibo Historikoan zabaldu berri duten Euskal Diasporaren Artxiboa. Bestetik, elkarrizketak ere egingo dizkiegu AEBetara emigratutakoei. Bigarren atala AEBetan dago zentratuta eta plan berdina jarraituko dugu. Hirugarren atala batutako informazio eta material guzti hori aztertzea, interpretatzea eta dokumentatzea izango da, idaztea, alegia. Idatzizko sintesi bat aurkezteaz gain, eskoletan erabiltzeko unitate didaktiko bat egitea da gure asmoa.

Zein helbururekin?
Lehen Hezkuntzako ikasleei egongo da zuzenduta. Gogoetarako eta analisirako gaitasuna garatzeko tresna bat izango da. Lehenengo pertsonan jarriko dizkiegu elkarrizketak, gaur egungo migrazioarekin loturak egin ditzaten, ulertzeko guk ere emigratu izan dugula.

“Adin kontuagatik, emigratu zutenek izango dute lehentasuna, garrantzia emango baitiegu lehen pertsonako kontakizunei”

▷▷ SAKONEAN

“Belaunaldien arteko transmisioa eta konexioa egotea oso garrantzitsua iruditzen zait”

Aurretik beste ikerketarik egin duzu?

Ikasketak amaitutakoan Aranzadin hasi nintzen lanean eta Gerra Zibilaren garaiko ikerketa bat egin nuen. Gerra Zibila Bakion ikertu nuen eta liburu bat kaleratu nuen. Gero Labayru Fundazioan egon naiz eta han beste ikerketa mota batzuk egin ditut, batez ere Bizkaiko baserrien toponimiaren arloan. Orain immigrazioaren gaineko lan honekin nabil.

Zer jaso zenuen liburuan?

Hiru fase ikertu nituen: errepublika sasoia Bakion, Gerra bera eta gerraostea eta Frankismoko hasierako urte gogorrak. Jende asko elkarrizketatu nuen, oraindik bizirik daudenak, dokumentuak lortu, kartzelara joan zirenen zerrendak egin, beste era batean errepresaliatuak izan zirenen zerrendak egin, testuak batu, pertsona bakoitzaren istorioak jaso. Sasoi horretan Bakion gertatu zena kontatu nuen.

Zerk pizten dizu ikertzeko jakin-mina?

Beti eduki dut jakin-mina antzinako istorioak ulertzeko, imajinatzeko eta batzeko, edo beste herrialde batzuetan gertatzen dena ulertzeko. Hortik datorkit interesa. Belaunaldien arteko transmisioa eta konexioa egotea oso garrantzitsua iruditzen zait. Horregatik egingo dugu unitate didaktikoa. Uste dut gaur egun behar dela zerbait konektatzen dituena adinean sartuta dauden pertsonak eta egungo gazteak. Hor hutsune bat dago, edo ez dago interesik.

Zehazki, zer aztertuko duzue?

Bizkaitik AEBetara egindako emigrazioa XX. mendean ikuspegi etnologiko edo antropologiko batetik. Horrek esan nahi du landa lana egingo dugula elkarrizketak lehenengo pertsonan jasotzeko. Ez da izango ikerketa historiko bat edo datu base bat, guk pertsonen sentimenduak eta esperientziak batu eta pertsona bakoitzaren idiosinkrasia babestu nahi dugu.

Zein metodo erabiliko duzue hori guztia ondo jasotzeko?

Barandiaran bekaren bitartez egingo dugunez, Jose Miguel de Barandiaranen metodologia jarraitu nahi dugu. Berak galdetegi luze bat sortu zuen, galdera oso zehatzekin, baina inoiz ez da erabili emigrazioaren eta diasporaren arloan. Guk moldatu nahi dugu, lortu nahi dugun informazioa bildu ahal izateko.

Zer motatako elkarrizketak izango dira?

Elkarrizketa sakonak izango dira. Adin kontuagatik, emigratu zutenek izango dute lehentasuna, garrantzia emango baitiegu lehen pertsonako kontakizunei. Gure asmoa da Bizkaiko eskualde bakoitzeko lau elka-

rrizketa egitea, gizonezko biri eta emakumezko biri. Orain kontaktuak bilatzen ari gara eta lana banatu dugu horretarako. Nik batez ere Bizkaiko kostaldeko eskualdeak egingo ditut eta Asierrek barnealdekoak; Bilboaldea elkarrekin egingo dugu. AEBetan lau eskualdetan egingo ditugu elkarrizketak, Kalifornian, Idahon, Utan eta Nevadadan; eta bakoiztean sei elkarrizketa, hiru emakumezkori eta hiru gizonezkori.

Nola egingo dituzue?

Lana euskaraz izango da eta ahalik eta elkarrizketa gehien euskaraz egin nahi ditugu. Udan AEBetara joateko asmoa dugu elkarrizketak lehen pertsonan egiteko eta hango liburutegietan arakatzeko, izan ere, han paper asko dago oraindik aztertu barik. Ezinezkoa bada bertara joatea, modu telematikoan egin beharko ditugu elkarrizketak. Erronka handia izango da, adineko pertsonak elkarrizketatu nahi ditugulako, baina ahaleginduko gara, ez dago besterik.

Orain dela 120 urte hasitako zerbait ikertuko duzue. Emigratutako belaunaldi batzuk ezingo dituzue elkarrizketatu, eta batzuk mugan egongo dira. Nola antolatuko duzue hori?

Emigrante izandako asko nagusiak dira eta haiek dute urgentzia handiena. XX. mendea hain luzea da eta hasierakoak bizirik egotea ezinezkoa denez, informazioa euren semealabengandik jasotzea espero dugu. Hala ere, lehentasuna eman nahi diogu lehenengo pertsonan bizi zuten horiei.

XX. mende osoa aztertuko duzue, asko aldatzen da garaiaren arabera?

Bai, batez ere arrazoiak. Joandako guztiek bizitza aurrera aterako ahaleginean egin zuten, lanera edo enpresak sortzera joaten ziren. Batzuk banaka joaten ziren, batzuk gazteak ziren, beste batzuk familiak, erbesteratuak… Profil ugari dago.

Eta eskualdearen arabera?

Dei efektua askotan gertatzen zen. Aurretik pertsona bat zihoan eta denbora bat igarota ikusten bazuen lanerako aukera zegoela, besteei deitzen zien. Askotan Bizkaiko eskualde batetik asko joan dira AEBtako beste eskualde batera.

Batez ere baloreetan zentratuko duzue ikerketa.

Gauza immaterialetan jarri nahi dugu fokua: jakituria, ideiak, tradizioak, baloreak… Hemendik eramandakoak zein hona ekarritakoak.

Zer balore eraman zituzten bizkaitarrek hara?

Euskal Etxeak ikusten ditugu, euskara edota dantza klaseak ematen dituzten taldeak. Badago transmisio bat, baina oraindik ezin dugu esan zer eraman zuten zehazki.

Eta Bizkaira, zer ekarri zuten bueltatu zirenek?

Beste mundu ikuskera bat ekarri zuten, modernizazio prozesurako onuragarriak izan ziren baloreak. Nire aitonaren kasuan beti esaten da han erlijiositatea galdu zuela. Lanerako eta solorako teknika berriak ekarri zituzten eta euskal ekonomian nabarmen eragin zuten. Adibidez, handik egiten ziren diru bidalketei esker errentan bizi ziren baserritar familia askok baserria erosi zuten edo herriko eraikin enblematikoak eta elizak berritu zituzten. Gehiago egongo dira eta hori da jaso nahi duguna.

Talka kultural handia nabari zuten joandakoek?

Egongo zen kontrastea, hizkuntza aldetik batez ere. Artzain joan zirenek denbora asko ematen zuten bakarrik inor ikusi barik, ez zuten horrenbeste nabariko. Besteek, noski, desberdintasunak ikusiko zituzten, baina sasoi konkretu batzuetan hain indartsua izan zen emigrazioa ezen komunitateak sortu ziren, eta elkar babesteko modua izan zuten. Hori da utzi duten ondarea: oraindik euskal komunitateak eta Euskal Etxeak egotea.

Baduzue Deustutik joandako norbaiten berri?

Oraindik kontaktuak bilatzen ari gara, baina ziur aski Deustutik joandakoren bat egongo dela.

"Gauza immaterialetan jarri nahi dugu fokua: jakituria, ideiak, tradizioak, baloreak… Hemendik eramandakoak zein hona ekarritakoak"

TAO

Urte amaierarako Ibarrekolanda, San Inazio eta Elorrietara TAO zerbitzua zabaldu nahi du Bilboko Udalak. Mugikortasun Sailak parte-hartze prozesua martxan jarriko duela adierazi du, aipatutako auzoetan eta La Peñan egoiliarrekin ordainpeko aparkalekua adosteko.

IMQ

Bilboko Udalak behin betiko onetsi du HAPOaren aldaketa puntuala IMQren Zorrotzaurreko ekipamendu sanitariorako. Aldaketa horrekin, beste solairu bat eraiki ahal izango du egungo eraikinaren beheko atalaren gainean. Eraikinak bi multzo ditu: beherenekoa, zazpi solairukoa, Euskalduna zubirantz ematen duena; eta hedadura txikiagoko bat, hiru solairukoa. Haren gainean eraiki nahi du solairu berria, 3.914 metro koadrokoa, ospitaleratzeetarako.

Kutxabank

Kutxabankek ez du Arangoitiko sukurtsala berrireki nahi. Duela urtebete itxi zuen auzoan zegoen banku-sukurtsal bakarra, eta ez du berriz irekitzeko asmorik. Deustuko Barruti Kontseiluko batzorde soziokulturalari jakinarazi dio "garai berrietara egokitzeko beharra" dela-eta itxi zutela egoitza. Ondorioz, Arangoitiko bizilagunak inguruko auzoetako beste sukurtsaletara jan behar dira banku eragiketak egitera.

DONE PETRI PLAZA

Lanak hasi dituzte

Udalak jakitera eman duenez, lanak plaza berritzeko, irisgarritasuna eta gozatzeko elementuak hobetzeko eta Agirre Lehendakaria kalean bi noranzkoko bidegorri bat ezartzeko izango dira. Deustuko Plaza Bizirik plataformak ordea, proiektuak gaur egun "plazak dituen arazo nagusiak konpontzen ez dituela" salatu du. 3,7 milioi euroko aurrekontua izango du, "garai batean 1,3 milioikoa izango zela iragarri zuten arren". 2019ko urrian "bestelako plaza bat" posible zela aldarrikatzeko agerraldia egin zuen Plaza Bizirik plataformak. Besteak beste, "frontoi estali bat eta Agirre Lehendakari etorbidearen murrizketa" eskatu zituzten. Orain, auzokideen proposamenak bildu eta txosten bat osatu dute Bilboko Udalean aurkezteko.

SEPURUKOATXA

Elkarretaratzea ortuen defentsan

Errondoko Auzo Etxeak deituta, otsailaren 17an elkarretaratzea egin zuten Levante plazan San Inazioko "ortuen alde eta espekulazioaren aurka". Bertaratutakoek Udalak "aldebakarreko erabakiak" hartzen dituela salatu zuten, "San Inazioko baratzeen suntsiketa" ekarriko dutenak eta "atzean ageriko interesak" dituztenak, "lurraren birbalorazioa", esaterako. Era berean, ohartarazi zuten "pixkanaka natura hiltzen" ari direla, "auzokideen beharrak kontuan hartu gabe". Hurrengo mobilizazioei adi egoteko deia zabaldu dute.

Yolanda Gonzalez

Urtarrilaren 31n omenaldia egin zioten duela 41 urte eraildako Yolanda Gonzalezi Erriberako auzokideek. 1980ko otsailaren 1ean hil zuen Madrilen Batallón Vasco Español talde paramilitarrak, 19 urte zituela. Hilketaren autore materialak Emilio Hellin Moro eta Ignacio Abad Velazquez izan ziren, biak ere Fuerza Nueva eskuin muturreko alderdiko kideak. Emilio Hellini 43 urteko kartzela-zigorra ezarri zioten, baina horietatik 13 baino ez zituen bete. Atera zenean, Luis Enrique aldatu zuen izena. Egun, izen horrekin peritatze kriminaleko bi enpresaren jabea da, eta horietako batekin Cristina Cifuentesen masterraren kasuan aritu da peritu judizial. Madrilgo presidente ohiaren defentsak aurkeztutako agenda elektronikoaren analisia egin du. Ez da lehen aldia Emilio Hellinen izena segurtasun lan publikoekin lotuta agertzen dela, aurretik Espainiako Gobernuarentzako, Madrilgo Udalarentzako eta Guardia Zibilarentzako lan egin baitu.

Urtea: 1978

Txema Luzuriaga

Deustuko geltokia

Bilbotik Plentziarako trenbidearekin batera, antzina tren geltokia Deustuko paisaiaren parte zen. Orain eraikitze modernoak irentsi du. Bide estuko trenbide hau 1893an hasi ziren eraikitzen eta 1893ko maiatzaren 15ean ireki zen zerbitzu publikorako. Plentziako trenaren eraikuntza hiru ataletan banatu zen. Lehenengoa, hasieratik Algortara zihoana, José Mª Aramberria Areetako trenaren eraikitzailearen ardura izan zen.

J. Mª Etxenagusiak utzitako argazkia.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

AZALA
TATTOO STUDIO
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfnona: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri
Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez euskara zerbitzua
Probatu herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
☎94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Zer deritzezu Done Petri plazako obrei?

Alex
Deustu

Pasaden egunean jakin nuen obretan zeudela. Ez dakit zer egingo duten, baina, onerako bada, ondo deritzot.

Unai
Deustu

Nik entzun dut frontoia kenduko dutela. Horrela balitz, oso txarto irudituko litzaidake. Hala ere, uste dut plaza hau baino gastu garrantzitsuagoak daudela. Dirua behar dutenei laguntzeko erabili beharko litzateke.

Nerea
Deustu

Ez ditu egun plazak dituen gabeziak konpontzen eta prozesu parte-hartzailerik gabe egin da, aldebakartasunez.

Estitxu
Deustu

Lotsagarria iruditzen zait 4 milioi euro gastatzea plaza lehen bezain txarto uzteko. Zuhaitzak kenduko dituzte eta umeek jolasteko leku gabe jarraituko dute, plaza maldan behera egongo delako. Udalak deitutako bileran egon nintzen eta ez digute jaramonik egin.

Carlos
Asturias-Deustu

Apurtuta egongo balitz, ondo ikusiko nuke, baina jendeak plaza erabiltzen du eta ondo dago, ez dut uste unea denik honetarako.

Aitziber
Deustu

Zoritxarrez, gehienetan bezala, Udalak ez die herritarrei hitza eman eta aspaldiko eskaerak bete gabe geldituko dira, plaza batzea edo frontoia estaltzea, adibidez.

>> LITERATURA

INDARKERIA MATXISTA IKUSPUNTU KRIMINOLOGIKOTIK

Leire Eiguren Obietak 'No vales más que yo' liburua argitaratu berri du. Ezagun baten esperientzian oinarrituta, indarkeria matxista ikuspuntu kriminologikotik eta biktimologikotik aztertu du. Lana euskaraz idatzi bazuen ere, argitaratu ahal izateko gaztelaniara itzuli behar izan du.

Testua eta argazkiak: Jone Gartzia Gerra

Kriminologiako praktikak egiten ari zela Donostiako Udaltzaingoko genero indarkeria sailean, emakume baten istorioak piztu zion liburua idazteko grina. Bere kasua aztertzean ezaguna egiten zitzaiola konturatu zen. "Nire lagun bat ikusi nuen islatuta", azaldu digu. Lagunarekin hitz egin eta salaketa aurkeztera ausartzen ez zenez, istorioa kontatzeko proposatu zion.

Horrela hasi zuen *No vales más que yo* saiakeraren bidea. Orduan, idazleak ez zuen espero argitaratuko zenik. "Amaitu nuenean oso harro sentitu nintzen eta kosta ahala kosta argitaratu behar nuela sentitu nuen", aitortu digu Eigurenek. Argitaletxe bila hasi zenean, ordea, ezezko asko jasozituen, Literarteko Maria José Mielgo Busturiarekin topo egin zuen arte. Hark baiezkoa eman zion, baldintza batzuekin: lana saiakera bat izan behar zen, ezin zuen lehen liburuan lagunaren bizipena kontatu, eta gaztelaniaz argitaratu behar zuen.

Lehenengoari aurre egiteko, alde teorikoa gehitu dio kontakizunari. Ikuspegi kriminologikotik eta biktimologikotik indarkeria matxista zer den, legeak zer dioen eta bere ustetan zer esan beharko lukeen aztertu du. "Astuna izan ez dadin, nire hausnarketa eta galderak sartu ditut", gaineratu du. Hizkuntzaren arazoari, kontrara, "amorru handiz" egin dio aurre. Argitaletxe bila zebilela, aipatu zioten euskaraz liburu bat kaleratzeko "izen ona" behar dela, eta bere lehen lana izanik, ez zuen horrelakorik. "Orduan dena gaztelaniara pasatu nuen, eta uste dut igertzen dela, ez delako nire ama hizkuntza. Lehenengoa gaztelaniaz argitaratzea erabaki nuen, baina ahal dudanean euskaraz argitaratzea espero dut, ez zaidalako zilegi iruditzen".

Argitaletxearen gomendioei jarraiki kaleratu du lehen lana deustuar gazteak, baina, bere helburua lagunaren istorioa kontatzea izan da hasieratik, eta horretan ari da orain. Liburuaren bigarren partea izatea nahi du, eta lotura izango dutela aurreratu digu: "Lehenengo liburua emakume horren hausnarketa batekin amaitzen da eta bigarrena bertatik abiatu. Irakurtzerakoan nabarituko da bigarren partea dela".

Momentuz, edozein liburu-dendatan eskuratu daiteke Leire Eigurenen lehen liburua. Gainera, kriminologiaren esparru zabaleko beste gaien inguruan *Criminóloga enfurecida* blogean irakur eta entzun daiteke, eta Wattpad plataforman bestelako generoetan idazten dituen lanak irakurri.

http:// sarekada

Adizkinator

Euskal aditzak modu azkar eta errazean jokatu eta bilatzeko aplikazioa aurkeztu dute. Euskaltzaindiak euskara baturako onartu dituen adizki laguntzaile eta trinko guztien modu neutroak eta hikako forma alokutiboak jasotzen ditu. Uribe Kostako AEKko euskara irakasle batek egin du, ikasleen beharrak asetzeko asmoz. Aplikazioa ezagutzera emateko, zabalkunderako bideo bat dago eskuragarri. Fikziozko istorio bat kontatzen du: Joxean hiztun gaixoaren bizimodua, aditzik gabe bizitzea zein gogorra den erakusten duena.

Jijaua

Lagunarteko euskara batua eta autonomoa sustatzeko helburuz sortu dute Jijaua webgunea. Ahozko eta lagunarteko euskara sustatu eta erdarek euskarazko jardun informalean duten zama arindu nahi dute hiztegi berri honekin. 1000 sarrera argitaratu dituzte dagoeneko eta egileek bi urtetan kopuru hori bikoizteko asmoa azaldu dute. Hizkera fonetikoa, hitano murriztua, esaerak, zunkak eta hirugarrenen materialak ere jasotzen ditu guneak. Ekarpenak, zuzenketak eta eskaerak egiteko aukera dago webgunearen bidez, Twitterren azken eguneratzeen berri ematen dute.

#entzuzu

Gazteentzako euskarazko podcast sorta argitaratu du Labayru Fundazioak. Bilboko Udalaren hitzarmen baten baitan garatutako egitasmoak helburu anitz ditu: gazteen ahozko jardunean laguntzea, lagun arteko erregistroa lantzea, egoera komunikatibo naturaletan hitz egiteko tresnak ematea, kalitatea eta bizitasuna hobetzea eta euskara ikasteko modu erakargarri eta dibertigarria eskaintzea. Guztira 5 minutu inguruko 6 podcast grabatu dituzte, egoera ezberdinetan erabiltzeko esamoldeen azalpenekin. Audioak iVoox plataforman entzun daitezke.

INAUTERIAK BERRASMATZEN

Inauteriak ospatu ahal izateko irudimena gogor astindu behar izan dute aurten Jai Batzordeek. Deustukoak eta San Inaziokoak argazki lehiaketa antolatu dute kuadrilla eta saltokien artean. Horietako batzuk bildu ditugu hemen.

ÓPTICAS
INAUTERIAK

Cuidamos de ti
MUSEO DEL CINE

DEUSTUKO INAUTERIAK
2021

entonces Blancanieves conoció en el bosque a siete enanitos...

P6
PABELLÓN Nº6
ARTE ESZENIKOAK
LAS RAÍCES CORTADAS
otsailaren 25etik
martxoaren 14ra
Zuzendaritza RAMÓN BAREA
Antzezleak IRENE BAU, JUANA LOR
Testua JERÓNIMO LÓPEZ MOZO
www.pabellon6.org

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

ORE AMADUN OGIA

Ez da ohikoa auzoko okindegien artean ogia bertan egiten duenik aurkitzea. Lehendakari Agirre kaleko 137.ean horietako bat topatu dugu, Day okindegiarekin hain zuzen. Jabez eta izenez aldatu duten arren, inguruko lehen okindegietakoa da, eta ogia zelan egiten duten kontatu digute Daygom, Anthony eta Eve jabe berriek.

Zailtasun maila: zaila

Egiteko denbora: 7 ordu, oratzen denetik labetik atera arte

Prezioa: 1,40 euro

Berezitasuna: hartzidura luzeekin egina eta ia legamiarik gabe

Kontu batzuk

Maiatzean hartu zuten okindegiaren gidaritza Daygomek, Anthonyk eta Evek. Lehengo jabeek egiten zuten ogiarekin jarraitu, hobetu eta berriak sartu dituztela kontatu digute. Besteren artean, ore amadun ogiarekin ari dira esperimentazioan. Zapore oneko ogi osasuntsuaren bila ari dira, mamiak testura ona izan dezan, trinkoa izan gabe. Ore ama %20an erabiltzen hasi ziren eta orain %35-40an erabiltzen dute. Horrez gain, irin guztiz integraldun ogiak, zerealdunak, arto-irindunak, txapatak, bagetteak... eta denetariko gozoak egiten dituzte, “imajina dezakezun guztia dugu”, aitortu digute irribarretsu.

DAY OKINDEGIA

Lehendakari Agirre 137

94 447 56 87

Zelan egin?

Orea egiteko hauek dira okinaren portzentajeak, %100eko irinarekiko: ura %70 (irinak duen indarraren arabera), gatza %1,8 eta %2 artean, eta ore ama %35.

Ore ama aurreko egunean egin behar da, zekale irina, gari irin integrala eta gari irin zuria %40ko hidratazioarekin nahasiz.

Dena nahasi eta gero, ore guztia blokean hartzitu egiten da, aromak, testura eta indarra hartzeko. Jarraian, barratan banatzen da eta berriro hartzitu, bi ordu eta erdi gehiagoz. Ostean, labean sartzen da 25 eta 30 minutu bitartean, zuriago edo txigortuago nahi den.

OSAGAIAK

Irina
Ura
Gatza
Ore ama

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan…

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

MADDI ARGOTE LEDESMA
Dantzaria

'KONPROMISOA'

Urtarrilaren 4ean Arriaga antzokira bueltatzeko aukera izan nuen eta garai gorabeheratsu hauetan ikusitako obra azpimagarrienetako bat ikusi nuen: *Konpromisoa*.

Philippe Gaudel Frantziar idazle eta zinemagileak idatzi du eta itzulpengintzan Marin Agirre aritu da. Zuzendari lanetan Begoña Bilbao Lejarzegi ibili da eta Joseba Apaolaza, Zuhaitz Gurrutxaga eta Ramon Agire aktore. Azkenengo honek eta Begoña Bilbaok *Heroiak* (2016) antzerkian egin zuten lan elkarrekin.

Konpromisoak Asier Sanchok eskaini ahal izan digun eszenografia eder eta atseginaz gain, mezu ugari botatzen ditu. Lagun arteko harremanen inguruan hausnartzen du, Tomas eta Germanen arteko laguntasunaz: bata aktorea, bestea idazlea; batak bere betiko etxe zahar eta ziztrina saldu nahi du eta laguntza eskatuko dio besteari. Haien arteko harremanaren gabeziak elkarri leporatzen dizkioten momentuan hasiko da benetako solasaldia. Solasaldia da, hain zuzen, Joseba Apaolaza idazteko darabilen era hitzekin jolasten hasten delako, Ramon Agirrek esaldi bakoitzari daukan mamia ateratzen dion bitartean. Etxearen erosle inuzentea, Zuhaitz Gurrutxaga, obraren barruko obra baten ikuslea izango dugu.

Komedia bada ere, ez ditu komedia batean ikusi ahal diren topikoak hartzen. Barre algaraka ibili ginen gu geu identifikatuta sentitu ginelako esaldi bakoitzarekin, onerako edo txarrerako. Bizi dugun egoera pandemiko honetatik irteteko aukera eman zigun eta 75 minutuz birusa eta birusak dakarren hori guztia burutik desagerrarazi zigun.

Antzezlan honetaz nik beste gozatzera animatu nahi zaituztet. Adi egon hurrengo emanaldiei!

ANDER ANAKABE LEKUE
Elorri bertso-eskolako kidea

Doinua: Norbere mundu intimo

Sorpresa handiz iritsi zen
gure artera Covid-a
eta egun denak doaz
astelehen baten neurrira
neurri berriak zein ote
hori da dugun intriga
ezkortasunak osorik
jo gaitu baina aski da
tunelaren amaieran
beti baitago distira
astiro-astiro joan
gaitezen denok argira
adi izan datorrenari
hurbil edo urrutira
eta ezin gara egon
beti atzera begira

Egun brindis egitea
hain dugunez konplikatu
zoriontasuna ia
bihurtu zaigu pekatu
baina gu zorioneko
gaudela naiz konturatu
Elorri Bertso Eskolak
10 urte ditu batu
PREST! eta Txantxiku aurten
hogeira dira ailegatu
Deustuko Gazte Lokalak
hogeita hamar kontatu
urteurrenen urtea
hori ezin da ukatu
garai gris hauetan ere
badaukagu zer ospatu

Mondragon Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan

“Eredu dualean benetako enpresa batean lan egiten duzu”

Leire Guerra (Bilbo, 19 urte) Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza (myGADE duala) 2. maila ikasten ari da Bilbao AS Fabrik campusean.

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?
Viuda de Epalza, Berrio Otxoa eta Botikazar BHI ikastetxeetan ikasi dut. Aisialdian kirolak egitea gustatzen zait, baina, batez ere, dantza egitea.

Zergatik aukeratu zenuen myGADE gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?
Ekonomiarekin zerikusia duen zerbait ikasi nahi izan dut beti, eta horregatik aukeratu nuen Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza gradua. Deigarria egin zitzaidan Mondragon Unibertsitateak eskaintzen zuen gradua, duala baita eta metodo dinamikoago baten bidez ikasten baitzen.

Nolakoa izan da orain arteko esperientzia?
Oso positiboa. Asko ikasi dut bai unibertsitatean bai enpresako praktiketan.

Nola definituko zenuke Enpresagintza Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?
Oso desberdina da, ez baitut azterketa baterako bakarrik ikasten, baizik eta ikasitakoa kasu erreal batean edo PBLn (arazoetan oinarritutako ikaskuntza) praktikan jartzeko aukera ere badugu.

Lanean ari zara ikasten duzuen bitartean, Dual ereduan. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzu?
Nik Forum Sport-eko logistika sailean hasi ditut praktika dualak. Eredu hori oso interesgarria da, benetako enpresa batean lan egiten ikasten baituzu.

Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?
Pertsonalki zein profesionalki heldutasuna ematen dit; izan ere, 18 urtetik hasita, helduen ingurunean zaude, eta ikasketetatik haragoko erantzukizunak dituzu. Kontzeptu berriak ere ikasi ditut, eta guztiz desberdinak diren tresnak erabiltzen ditut.

Atzerriko esperientziarik izango duzu? Non? Nolakoa izango dela esan dizute?
Atzerriko esperientziek are balio handiagoa ematen diote graduari; izan ere, urtero atzerrian egiten da esperientzia bat, eta bertan bisitak egiten dira tokiko enpresetara, bai eta beste herrialde batzuetan kokatutako euskal enpresetara ere.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?
Bi helburu oso desberdin ditut. Alde batetik, Marketin saileko enpresa batean lan egitea gustatuko litzaidake. Eta, bestetik, nire bigarren helburua da irakasle gisa lan egitea, ikasi dudana metologia beraren bidez irakatsita, uste baitut zerbait desberdina eta ona ekar diezaiekedala ikasleei.

#HARRAPAZANK

10-18 urte dituzu eta Bilbotarra zara?

Bilbao

TRAILERRAK
ONLINE TAILERRAK

Tutorial erraldoiak bideo txikietan! Nahi denean etxetik egitekoak.

KLIKA ZANK

Bilboko game playerren lehia! Rocket League bideo-jokoan oinarritutako txapelketa.

ESZENA

Atera zure talentua! bidali zure bideo-castinga eta 500€ irabazi!

HARRAPAZANK Kalean

Harrapatu zure aukera! Graffiti tailerrak, Parkean Party eta Harrapazank jaia.

IZEN EMATEA
eta informazio gehiago:
www.harrapazank.eus
Otsailaren 1etik martxoaren 31ra

Bilbon euskaraz

Bilbao

www.bilbaoeuskaraz.eus